

PIRINIOETAKO FAUNA (III)

UHANDRE PIRINIARRA

Eneko Imaz

ORAINGO honetan Pirinioetan soilik bizi den anfibio endemiko batetaz hitz egingo dugu. Ingurune menditar edo goimenditarreko erreka hotz eta lasterretako biztanlea da, gure inguruko beste uhandreekin (Triturus) eta arrubioarekin (salamandra salamandra) batera Salamandridae familiako kidea da eta, **uhandre piriniarra** (Euproctus asper) izenez da ezaguna. Orokorrean, Pirinioetako bi isurialdeetan bizi da 700 eta 2500 metro artean, populazio nagusienak 2000m inguruan daudelarik. Hala ere

Uhandre piriniarra (Euproctus asper), **Pirinioetako erreka eta putzuetan bizi ohi da, bertako baldintza gogorretara ederki moldatuta dagoelarik**



Argazkia: Joserra Alhartzta

Uhandre piriniarra, beste uhandreekin alderatuz nahiko zaplana da

uraren tenperaturak eta oxigenazio mailak baimenduz gero altitude baxuagoetan ere ager daiteke; baina 3000m-tara ere.



Argazkia: Eneko Imaz

Deskribapena

Isatsa barne, 10-16 zentimetro arteko luzera duen animaliatxo hau, goi aldetik kolore nahiko ilunekoa da, ingurunearekin ondo nahasten delarik (ikusitako irudiak); azpia berriz hori edo laranja antzekoa du. Azala latza eta bikorrez betea du (ikusitako 1. irudia) eta bere familiako kide guztiek bezala gai toxikoak jariatzen ditu predatzaileen aurkako defentsa gisa. Korrontearen erresistentzia gutxitzeko, gorputza eta burua nahiko zaplanak ditu (ikusitako 1. irudia) eta gainera, emearen kloaka atze-aldera zuzendua dago urak arrautzak ez eramatearren harripeetan itsatsi ahal izateko.

Baina morfologiaren gain, uhandre piriniarrak bere fisiologia, biologia eta ohiturak aztertuz gero baditu mendiotako erreka hotz eta lasterretan bizitzea baimenduko dioten beste hainbat modapen.



Argazkia: Joseerra Alhartzza

tura gehiegi igoz gero ezin izango du behar adina oxigeno eskuratu eta lokartu beharrean aurkituko da, horrela metabolismoa moteldu eta oxigeno beharra gutxituz.

Uhandre piriniar bikotea akoplamenduan

txienez urtebete beharko dute erabat garatu ahal izateko eta lau urte heldutasun sexuala lortu aurretik.

Biologia

Uhandre eta arrubio gehienetan, arrek, espermatoforoak substratu gainean uzten dituzte eta gero emeak kloakako ezpainen bidez jasotzen dituzte barne-ernalketa gerta dadin, baina hau guztia urpean eta "dantza" nupzialak dirauen bitartean. Uhandre piriniarraren kasuan ordea, ur lasterretan bizi denez, hau ez da posible, urak espermatoforoak eraman egingo bait lituzke. Hori ekiditearren akoplamendu moduko bat ematen da. Horrela, ar batek espeziekideren bat somatzen duenean isatsa alboratu eta zutik jartzen da atzeko hanken gainean; beste uhandrea hurbitzean isatsa eta hortzen bidez harrapatu egingo du. Harrapatutakoa beste ar bat baldin bada banandu eta bakoitza bere bidetik joango da; emea bada ordea, atzeko hanketako hatzez igurtzi bitartean, arra, bi kloakak parean jarri harte mugitu eta biribilkatuko da (ikusitako 2. irudia). Jarraian, atzeko hanketako hatzez lagunduta, espermatoforoak (batetik laura) emearen ezpainen kloakalen barru aldean sartuko ditu.

Hau uztaila-abuztuan gertatu ohi da baina emeak espermatoforoak hurrengo udaberriarte gordeko ditu, orduan emango delarik benetako ernalketa. Ondoren, ekaina aldera, arrautzak errungo ditu. Lehen esan bezala, duen kloaka bereziaren bidez arrautzak harrien zirrikietan eta azpi aldean itsatsiko ditu banaka banaka. Arrautz zuri edo horiska hauek itsaskorrak dira eta era berean handiak (4-5mm), enbrioiek ur hotz horietan garatzeko nahikoa elikagai izan dezaten. Hilabete inguru ondoren larbak jaioko dira (ikusitako 3. irudia). Larbok gu-

Ohiturak

Uhandre piriniarra, aktibo dagoenean, animalia gautarra eta urtarra da, uretako orngabeez elikatzen delarik. Eguna harripeetan edo ur-hondoan geldirik eman ohi du. Dena den, gune baztertuenetan, ez da oso arraroa egunez ere ehizean topatzea.

Ur hotzak behar baditu ere, negua iristean, ureratik atera eta hibernatu egiten du udaberriarte. Hibernazioaren hasiera eta bukaera garai ezberdinetan emango da altitude ezberdinen arabera.

Amurrainak ugariak diren tokietan uhandre kopurua jeitsi egiten da predazioa dela eta.

Amaitzeko esan, bai hibernazioa, bai estibazioa (gertatzen denean) baita temperatura hain baxuetan bizitzea ere, nahikoa izan daitezkeela enbrio fasearen iraupen luzea eta heldutasun sexuala lortzeko lan urte behar izatea azaltzeko. Izan ere, bai larbatik heldurako aldaketak baita espermatozoide eta espermatoforoen ekoizpenak energia kopuru nahiko handia eskatzen dute eta horrek asko jan beharra esan nahi du.

Euproctus jeneroaren baitan badira beste bi espezi: Euproctus platycephalus uhandre sardiniarra eta Euproctus montanus uhandre korsikarra. Bi hauek ere, endemikoak (bata Sardiniakoa eta bestea Korsikakoa) eta goimenditarak dira, beraz jenero hau gaur egungoa baino garai hotzago batean garatutakoa dela pentsa daiteke, ondoren klima epeldu ahala goimendietara jo behar izan dutelarik.

Uhandre piriniarrak intsektu larba asko jaten ditu. Argazkian burduntzi larba bat menperatu nahian

Fisiologia

Anfibio hau, animalia estenotermoa da (temperatura aldaketa txikiak soilik jasan ditzake) eta beraz 13°C-ko temperatura baino altuagoa uretan ez daiteke bizi. Normalean Pirinioetako erreketan ez du temperatura arazo askorik, baina udan ura hortik gora berotuz gero Euproctusa estibatzekeo gai da, hau da, putzu sakon batetako ur hotzetan hondoratu eta udako loaldian sartuko da. Hau espezie honen arnas-sistemarekin dago lotuta. Horrela, uhandre piriniarraren birrikak, funtzionalak izan arren oso murriztuak daude eta arnasketa kutanea (azalean zeharreko difusio bidezkoa) da arnasketa modu garrantzitsuenak. Hori ur hotzetan soilik da posible, urak, zenbat eta hotzagoa izan orduan eta oxigeno-disolbatu kantitate altuagoa izango baitu; eta ur lasterra bada are altuagoa. Beraz, udan, uraren tempera-

Argazkia: Eneko Imaz